

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresak ez du mailegurik eskatuko, izan ere, ez du kostu handirik edukiko, horregatik gure poltsikotik jarriko dugu behar dena. Ekintzailak batek, Naiarak, informatika ikasi zuen eta oso abila da ordenagailu kontuetan, asko gustatzen zaio. Berak sortuko du aplikazioa eta baita webgunea ere. Bertan, aplikazioari buruzko informazioa aurkitu ahalko dute, nola erabili, zer aurkitu dezaketen...

Horretaz aparte, gure enpresa zabaltzeko luneren laguntza ezinbestekoa izango da. Bera, oso lagunartekoa denez, beste enpresei aplikazioaren berri iristeaz arduratuko da eta iragarkiak jartzeko prest dauden galdetuko die. Influenzerrekin ere hitz egingo du, beraien sare sozialetan gure proiektua lau haizetara zabaltzeko. Horren truke gure poltsikutik aterako den diruaren zati bat emango diegu.

Gainera, Lorea, beste ekintzaileetako bat, arte munduan ona denez, aplikazioa diseinatzeaz arduratuko da. Beraz, informatikoari aplikazioa sortzen lagunduko dio, bere ideiak bertan plasmatzeko. Elkarlanean arituko dira. Moda munduan ere aditua da, asko gustatzen zaio.

Azkenik, Nereak, e-mailera bezeroek bidaltzen dituzten mezu, eskaera, proposamenak... kudeatuko ditu. Izan ere, oso ondo ematen zaizkio hizkuntzak eta baita idaztea ere. Noizean behin galdetegi bat bidaliko die bezeroei haien iritzien berri edukitzeko. Webguneko aurkezpena ere berak idatziko du.



Hau guztia Naiararen etxean egingo dugu espazio asko eta handia delako. Bertan wifi konexioa edukiko dugu eta bakoitzak bere ordenagailua eramanda lan egingo dugu.